



REASEKO ESTATUKO TOPAKETAK

Iruñean ospatua, elkartasunezko ekonomiaren etorkizuna eztabaidatu zen. Merkatu soziala, erosketazentrala, elkartasunezko finantzak, auditoria soziala, gizarteratze-enpresen legea...

“Erosketa bakoitzean nolako gizartea nahi dugun erabaki dezakegu” (REASeko Kontsumo Arduratsuaren Batzordea)

KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA

Nafarroako Ingurumen-Baliabideen Zentroak lehenbiziko Nafarroako Kontsumo Arduratsuaren Gida argitaratu du, Gobernu foralaren Kontsumo-Zerbitzuarekin eta REAS Nafarroarekin elkarlanean. Hogei entitate baino gehiago lanean aritu diren Nafarroako Kontsumo Arduratsuaren Foroaren lanaren fruitua da gida hau. 5.000 ale argitaratu dira eta helburua hiritarren sentsibilizazioa da, gaurko kontsumo eredia “kaltegarria eta bidegabea baita, aberatsen eta



behartsuen arteko amildegia etengabe handitzen duelarik”. Era berean “Kontsumo Arduratsua” kontzeptua argitzearen aldeko lana bultzatzen du eta Foroan parte hartzen duten entitateen eztabaiden emaitzak eta akordioak gizarteratzen ditu. Ikus www.crana.org webgunean.

Laburrak

REASekiko azken bat egiteak: TAU Fundazioa eta ANDREA. *Ongi etorri!!*

REAS Nafarroarekiko atxikimenduak.

Nafarroako Parlamentuak eta Irunberriko Udalak aho batez onartu dituzte elkartasunezko ekonomiaren eta Sareak bultzatutako ekimenen aldeko babes-mozioak. Ikus debateen egunerokoa.

Komunikazio Alternatiboa Maiatzean ospatu ziren jardunaldi interesgarriak. Ikus www.proclade.org

Auditoria Soziala: Zortzi lan-sesio egiten ari dira ASa gure lurralde-errealitatera moldatzeko. 2007tik aurrera ASa exijituko zaie REAS barneko eskubide osoko entitate guztiei.

Web berritua:

Ekainaren bukaeran prest izanen da: www.economiasolidaria.org

Elkartasunezko

Ekonomian Prestakuntza. Batzorde berria. Parte hartu nahi baduzu harremanetan jarri.

BANKU ETIKOA – FIARE

1,2 milioi euro utzi dira Iruñeko Fiare-ren bulegoan bost hilabeteetan. 2.010 urterako helburua zen, beraz, zorionak! Bien bitartean zer proiektuk merezi duten kreditua aztertuko duen batzorde etikoa eta soziala hasi da lanean, erreferentziako pertsonen osaturik. Hurrengo urratsa 2010an (orduaz itzuliko zaio Banca Popolare Etica Italiana delakoari banku-lizentzia) sortuko den kreditu-kooperatiba osatuko duten pertsonak eta entitateak elkarre batean biltzea da. Ikus informazio gehiago honako webgunean:

www.projectofiare.com.

PANELAK

Hau bezalako 100 panel kokatu ditugu zentro pribatu zein publiko askotan.

Interesgarri jotzen duten lagun guztiek elkartasunezko ekonomiari buruzko material batzuk eskuratzen ahal dituzte. Besteak beste, Elkartasunezko Ekonomiaren Gidaliburua, hala nola Kontsumo Arduratsuaren Kale-Izendegia, buletinak etab. Ikus helbideak REAS Nafarroako webgunean.



SAREEN ARTEKO ELKARLANA

Oraingoan REAS eta “Pobreza Cero” Kanpainaren arteko elkarlan gero eta hobeaz azpimarratuko dugu eta, halaber, Pobreziaren Sarearekin nahiz GGKEen Koordinadorearekin batera egindako lana.

Ekuadorreko Grupo Salinasekin Senidetzea

Hegoaldeko herrialdeetako elkartasunezko ekonomiaren sare zenbaitekin harremanak izan ondoren, geroan ere landuko direnak, Reas Nafarroako Nazioarteko Batzordeak Ekuadorreko Grupo Salinasekin senidetzea erabaki du. 1971z geroztik ari da lanean elkartasunezko ekonomian inspiratutako mugimendu kooperatibo hau



ekonomia alternatibo eta elkartasunezkoaren sarea
Artica, 32—Iruña Tf: 685 517 030 (Felip)
secretariareasnavarra@reasnet.com
www.economiasolidaria.org/reasnavarra

SAREAREN PROIEKTUAK

2006-07 IKASTURTEA

Elkartasunezko ekonomiaren eredua hedatzeko estrategiari eutsiko diogu **"bestelako ekonomia..."**, bere errealitatea ikustatzeko **"...posible da..."**, eta bere garapenean gizarte-ehuna inplikatzeko herritar guztiengana iristeko, **"...Nafarroan"**.

Ongi baino hobeki dakigu aldaketa kultural bat proposatzen ari garela, balioetan hezkuntza-prozesu bat, eta honek guztiak epe ertain-luze batean prozesu bat dakarrela. Horren ondorioz harreman ekonomikoaren aldaketa etorriko litzateke, azkenean harreman bidezkoagoak, humanoagoak eta elkartasunezkoagoak erdiesteko.

Gizartean errotu nahian, elkartasunezko ekonomiari buruzko informazio eta prestakuntza-fase batean gaude. Halere, parte-hartze soziala bultzatzen duten tresnak sortzen ari gara (finantzak, kontsumoa), herritarrek nahi duten elkartasunezko ekonomiaren eredua garatzeko aukera izan dezaten.

Sortzen ari garen gizarte klasean denok dugu erantzukizuna, eta gero eta argiago dagoena da erreforma amiltzen ari garela daukagun enpresa bakarra, "gure planeta". Tokian tokio garapen sozialak uste baino eragin global handiago dauka. Beste esperientzia batzuk ezagutzea lagundu egingen gaitu gure bidean urratsak egingen, horregatik nazioarteko zein estatuko elkartasunezko ekonomiaren mugimenduekiko harremana ezinbestekoa zaitu.

Ikasturte honetan gauzatuko diren ekimenak honako hauek dira:

Nafarroako Elkartasunezko Ekonomiaren Azterketa

Helburua Nafarroan nolako egoeran gauden eta dauden beharrak aztertzea izanen da, sarearena baino ikuspegi zabalago batetik. Urte amaierarako aurkeztuko eta argitaratuko da.

Aberastasunaren eta enpleguaren jardunaldia

Azaroan egingen den jardunaldi honetan "Reconsiderar la riqueza y el empleo" liburua bere egileek aurkeztuko dute. Gero debate-hitzaldia egingen dute Nafarroako solaskide sozial zenbaitek.

Merkatu Soziala

Merkatu sozialaren estruktura bat sortze aldera eta lehen urratsa bezala, Marka bateratu bat paratuko da sareko entitateen produktu, zerbitzu, papera, ibilgailu eta gune guztietan. REAS presente dagoen lurralde guztietan gauzatzen ari da proiektu hau, eta dagoeneko abian da Katalunian eta Valentzian.



Auditoría Sociala

Tresna honen 2006ko garapen-prozesuaren ondoren, 2007ko lehenbiziko sei hilabetekoan sarearen entitate guztietan jarriko da martxan. Defendatzen dugun elkartasunezko kartarekiko enpresen eta entitateen koherentzia aztertuko du auditoria sozialak.

Lanbideratze eta Gizarteratze-Zentroak

SNE eta INBSekin lortu arte tematuko gara, enpresa hauen baldintzak hobetzeko helburuan koordinazio hobea izateko. Zentro gehiago sortzea eta urtero beren datuekin zein esperientziarekin memoria bat argitaratzea ere helburu ditugu.

Kontsumo Arduratsuaren eta Elkartasunezko Ekonomiaren Programa



Bigarren aldiz errepikatuko da programa hau, gizarte ehunarekin laguntzaz alternatiba hauek herritarrengana iristeko. Horretarako halakoak behar dira:

- Komunikabideetan presentzia.
- Elkartasunezko ekonomiaren webgunea garatu.
- Material didaktikoak argitaratu.
- Paneletan informazioa banatu eta kokatu.
- Erosketarik Gabeko Eguna ospatu (Azaroaren 24a)
- Elkartasunezko Ekonomiaren Feria (07ko otsaila)

Banku Etikoa- Fiare

Asoziazio-plataforma bat sortuko da gizarte-ehunak Nafarroan banku etikoa bultzatzeko. Helburua 2010 urtean estatu mailako FIAREren proiektuaren baitan arituko den Nafarroako kreditu-kooperatiba bat sortzea da.



Feria Nafarroa Bio 06

2005ean bezalaxe, Reas Nafarroak parte hartuko du beste erakunde batzuekin batera ekitaldi batzuen antolakuntzan eta bere gune propioa ere izanen du Feria honetan, azaroaren 10etik 12ra Baluartean ospatuko dena.

Elkartasunezko Ekonomiaren Eskola

Ikastaro eta sesio batzuk programatzeko dira, betiere Elkartasunezko Ekonomiaren praktika eta teoriaren garapenari buruz sortzen diren gai horien guztien inguruan.

Nazioarteko Parte-hartzea

2007ko apirilean hitzordu garrantzitsu bat daukagu Belgikan ospatuko den 4. Elkartasunezko Ekonomiaren Nazioarteko Topaketan. Bertara ordezkari bat bidaliko dugu.

